

Gaur ipuin hau hankaz gora geratu da. Behar bada pertsonaiaren lagunak izan dira edo bere Zakar txakurra. Batek daki!


Irakurri lau zatiak eta era egokian zenbakiz ordenatu, horrela hobeto ulertuko duzu.

LAGUNEN BISITA

Eneko txirula jotzen hasi da. Leirek armairua ireki eta jostailu guztiak bota ditu, «nahi gabe», bere esanetan. Iraia eta Alex ohe gainean saltoka hasi dira, nahiz eta ni barruan egon, eta Maitaneri, ipuin bat hartzean, apaleko liburu guztiak erori zaizkio. Peru arrainontzira esnea botatzen harrapatu dut, eta Mikelek baloia lanpararen kontra bidali du ostiko batez. Ez dago logelan egoterik!

Atzo, sukarrarekin egonda ere, logela txukundu nuen, lagunak polit-polita ikusteko: arropak eta zapatak beren tokian ipini, hautsa garbitu, arrainei ura aldatu, jostailuak batu, liburuak apaletan kokatu... Dena txukun-txukun zegoen.

Heldu direnean, aita ogitartekoak eman dizkie, eta nire logelan sartu dira. Hasieran, formal eta txintxo egon dira, baina gero.



Aitak ogitartekoak eta tarta bat prestatu ditu, nire lagunak etxera etorri behar dutelako ni bisitatzera. Gaixorik egon arren, pozik nago: azkenean lagunak nire etxean egongo dira eta, nire logelan!

–Ikusten, Zakar? –esan diot gure txakurrari–. Nire lagunak etxera ekarriko ditut. Zuk inoiz ez diguzu uzten zure etxolan sartzen. Zu bai txakur zakarra!

–Ama! Aita! –hasi naiz garrasika–. Bidali nire lagunak hemendik! Aita! Ama!

Lagunak joan direnean, negarrez geratu naiz. Nire logela hankaz gora dago, ez du ematen nire logela.

–Orain ulertzen dizut! –esan diot Zakar txakurrari–. Zu bai txakur azkarra, lagun!

